

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## 4717

*IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Residuos Lemona, SL enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa, Lemoan (Bizkaia) hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarduerarako (hondakin plastikoak jaso, sailkatu, birrindu, biltegiratu eta hondakin izateari uzteko), Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko.*

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren araubidea aplikatu beharra ezartzen du I.B eranskinean jasotako jardueraren bat gartzten duten titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzen badira.

Ingurumen-baimen bakarraren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratzen dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko isurpenen baimenak, eta dagozkien isurpenen muga-balioak ezartzen dira, aplikatu daitezkeen arloko araudiak xedaturikoaren arabera.

Arauk 36. artikuluan ezartzen duenez, eskaera aurkeztu ondoren eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela ikusi ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa iragarrita, instalazioaren edo jardueraren proiektua jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkez daitezzen.

Zabalkunde handiagoa emateko, iragarki horren berri emango zaio ustiatzeko jarduera edo instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalari, toki-erakundeak bere ediktu-oholean ikusgai jar dezan.

Adierazitako guztiagatik, AAU00930\_SOL\_2022\_001 espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta oharra egin ditzaten.

Jendaurreko izapidean jarriko den instalazio-espedientea Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 13a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.

2024ko urriaren 14a, astelehena

## ERANSKINA

Erreferentzia	Interesduna	Udalerrria
AAU00930_SOL_2022_001	Residuos Lemona, SL	Lemoa